



Erroma.—Batikano'tik.

Aste onetako izpafik garrantzitsuen Aita Santuak Batikano'tik urten eta S. Giovanni a Laterano'ko eleizara egin daben osterea izan da. Goizeko zortziretan bilbelean urten eben. Batikano'ko zelaya; gizostez beterik egoan, Aita Santua agertu zanean bere onspena artzeko. Ordu lauren bañu eldu ta Mixiño-Bildegia ikertu eban eta ondoren Yaupa nagusia esan zan 20.000 lagun bañuan zirala. Bitartean agirian beste yaupa bat esan eben 300.000 lagunen afean. Mesa asi aufetik Kurutza Deunaren «efelikia» Berak emondako ontzi bafian ipini eban eta mesetan Spadini agurgariak lateraz itzaldi bat egin eban, IX'n Pio'k 1870'gn. egin eban ikertzea gomutauaz. Ondoren kanpoan egoan gizoste izugariari bere onspena emon eutsen. Latefi - ordelariak bertan ziran, eta euron artean De Valera Irlanda'ko Lendakaria. Ordu bat eta erdi inguruan Batikano'ra biurtu zan.

Bidezkundeak.

Ugari bai ugari lengo asteen be eldu dira. Beljika'fak latefi gustikoa bialdu dabe, Aita Santuak euren efiaren gorlben andiak egin dautsez; Kistar-Ikastiko Anayak 3.000 ikaslegaz Aita Santua ikertu dabe; Bilbao'tik Euzkadi Roma, izenaz, 33 bidezti; Baita, Pignateli abaren zoriundun iragartea zala-ta, Zaragoza, Valencia ta Barcelona'tik yoan diran 500 bidezti Aita Santua ikertu dabe. Aita Santuak esan dautse, poztasunen artean samin andiak be ba'dituala eta bat, egunokaz emon daben, «Gopatzen (Kongregaziño) aurkako lege gaizto ta gazterientzat kaltegarria» «On diran gustiak egin bear daben gustia egiten aleginduko ba'lira, garaitza ufean izango litzake. Otoi egin, zur ibili ta lan egitea beafekoa da, eta onetan arduratsuak izan bear dirala, esan eutsen. Azkenez, gustiak onesten zituala; onak zintzo yaf-

aitu dayen eta gaiztoak, bide oneratuta ikusteko zoriona izan daigun. Beste bidezkundeen artean oneik ikertu eben; Regio Calabria'tik langile talde aundi batek; Italia'ko Mixiñozale talde batek; Amsterdam'eko Irugafengo talde ederak, eta 26'n. eldu dan España'tik beste talde bat.

Pignateli aba zoriundun.

Aba yosulaun ospetsu au zoriundun iragarrea, Ofila 21'n izan zan. 17 kardenal eleizkizunear bildu ziran, eta bere sendiko 40 lagunen artean bere bitartekotasunez osatu zan M. Berta Guin Martinez, Barcelona'koa izan zan. Pignateli aba Zaragoza'za'n 1737'n jayo zan eta 1811'n Italia'n il. 15 urtedun yosulaun sartu 25'urtedun Mesa emon. 30 urtedun zala yosulaunak España'tik yaurti ebezanean, erbestean ibili zan eta 1773'n Kelmen XIV'k, gaiztoen zemakuntzaz, Lagundia kendu ebanean, zintzo yafaitu eutsen bere deyarri, eta alegin andiak egin zituan Rusia'n egozan yosulaunen antzera, zerbait eutsiten eta alegin andiak egin zituan bafien bafi Aita Santuak bafizkunde erabagia emoteko. Yosulaun zoriundunak onegaz 139 dira. Ofez gañera 25 deun iragarita daukez. Igalietatik zugatza ezagutzen ba'da...

Bingen Paul'dar deunaren efuki Bazkunen eungafen urtean.

Ozana'n pantzetar gaste bikaña 20 urtedun zala efuki bazkunok eraldu zituan, eta ezaban uste izango ain ospe andiz eungafen urtean ospatuko ebenik. Paris'en egin diran yayetan 27 latefiko ordelariak bildu dira; Aita Santua'k Bere Ordeazko Verdier kardenala izentau dau, eta bertan izan da Irlanda'ko Lendakari De Valera ospetsua be. Verges Lendakariak egin eban itzaldian, Bazkun oneik artu daben indafa azaldu eban; 14.000 Bazkun 200.000 bazkideagaz dira lurbira gustian eta 1931'n bakafik 200 miloi sorroski edo limosnak egin ditue,

eta 1932'n olango bi inguru. Ozana'n Perderika'ren gorlbenaz eta zoriundunen artean ikusteko itzaropena eukola esanaz amaitu eban. Efepublika lendakariak bere ordezkoa bialdu eban, baita Atzeri-arazoetako erkaltseñak be.

Baviera'ko gurasoak katoliko azieraren alde.

Baviera guraso katolikotafen Bazkunak 600.000 bazkiden izenean dei bat guraso ta irakasle katolikoei egiten dautse, gasteriaren aziera onaren alde.

Alemania'ko Gotzafiak aurtengo Epala'n katoliko gustiei eskatzen eutsen lez, eurak be ardura ta lofik andienaz gasterien katoliko azieraren yokatuteko gertu dagozala diñoe. Eleiza'k euren kontzientziak umeen eskubideak eta euren erantzupenak eskatzen dautsenez; lenen katoliko ikastola aldeztuko dabe izenez eta izatez; irakasle ta katolikotafei katoliko etxeetan irakasteko, eta ikastoleatik, aziera onen kalteko diran galbide gustiak urfintzeko. Ortze dago ustzia izan be.

Bidezkunde bakana.

Ofila'ko 12'g Shanghai itxasontzia artu eben 36 bidezti txina'ek, Yubileo nekazka irabazi ta txinar gotzain egingo diran eleizkizunera etorteko. Bideztiok onexek dira: bederatzi Gotzain, euroatik lau txina'fak, saspi abade eta beste ogei lagun, euronartean Txina'ko Katoliko-Ekintza'ren ordelari batzuk.

Katoliko Ekintza Siria'n.

Alde guztietan indafa artzen dau Katoliko-Ekintzak eta Siria'n bertan ofetarako bazkunak sortu ziran, ezpai barik on asko egingo dabenak. Aleppo'n Melkitar, Armeniar, Maronitar eta Siritar gurkerako Gotzafiak asmo batez alkartuta, gasterien eta efuki-egintzetarako etxe aukerako ta zabalak iragitea. Uriko tokirik ederean egin dabe, dirutza aundia eralgita, eta Yofala 30'n onetsi dabe. Gotzafiak buru dirala iru mila lagun baño geyago bildu ziran maronitafen Gotzain-Eleizan esan zan mesa nagusian. Ondoren etxe bafira yoan, eta Aita Santua'ri agur bat bialdu ondoren, batzafean iru erabagi oneik artu ebezan: Mutil eta nezkatilientzako gogo-iñarkun saratuei indafa emotea; katoliko egunoroko izpafingit bat ataratea, eta efuki-egintzako bazkunei laguntzea. Ondoren egin zan bazkarira, Gotzafien artean, Pantzetar agintarien ordelari ta mamofen Wali edo yaurlaria izan ziran.

Egipto'n be...

Cairo'n Yesu Kristo'ren Bereroskundera bertako umetxoak ederto ospatu dabe. Yofala 27'n, Marka deunaren eleizan 1.500 neska - mutiko batu ziran, gure Yauna artu ta ondoren, ibildeun eder bat egiteko. Gure Yauna, Valeri Aita Santua'ren Ordelaria'k eroan eban, beste sei Gotzain inguruan zituala. Izpar pozgarria da berau...

M'tar G.

Irakuri ta zabaldu EKIN

Alde gustietako izparrak

BIZKAYA

Abadiño.

Ixidore deunaren jaya.

Lugin-alkartasunak goizean geure Jaunartze, Mesa Nagusi ta abar andikiro ospatu dau. Mesa Nagusi ondoren txikien pelota-yokaldia Befizbeitia'tar Benito ta Uria'tar Eugenio'k, Befizbeitia'tar Angel, Arginzoniz'tar Rufino ta Badaya'tar Daniel'en aurka. Lenengoak irabazi afen guztiak polito yokatu eben. Mutikook gefiko ta praka zuriekaz agertu yakuzan pelota-tokian. Bazkarie pipeta baño gofiago egiteko lakoan izan zala esan ezkerro dana esanda dago. Olerkari puntarengoak Azkafaga'tar Txomin eta Afoita'tar Kistobal agertu ziran. Gotzafi, Soloatxiki, Oloso'tar Prantzisko ta Lasuen'dar Balbino'k bai yantzan eta bai aufezkugian gustiz ondo ta gogotsu inarduen. Alboko batek esan eustan: mutilak, orpoan ar asko etxeukiek ba ofelan yantzatuteko gizonok. Agurtza ondoren pelota-yokaldi bi. Gotzafi ta Belar'tar Teodoro, Zuazua'tar Donato ta Lasuen'dar Balbino'n aurka. Mutilak alako yokaldirik. Gotzafik jo ta kea, noizean bein utsen bat bota afen, ateraten eban gero. Baña alan da guzti be... bat irabazi, ta beste bat galdut: Gotzafi len lez gelditu. Onein ondoren, Gofotzategi'tar Leoncio ta Azkarate'tar Felipe'k, Urien'dar Felipe ta Arteaga'tar Genar'en aurka. Oso polita ta atsegingafia izan zan yai anaikor oni amaya emoteko. Txanbolinek be yotaldi edefak egin euskuzan. Olantxe yafaitu luginak.

Eskontzak.

Elosu'tar Nikolas eta Afoita'tar Anizeta igaro dan asteen eskondu ziran.

Armendariz'dar Maximiano ta Albizuri'tar Julene, Matiene'ko irakaslemia, Arantzazun igaro dan asteen eskontzako ikurtona artu eben. Zorionak.

Jayotza.

Afinda'tar Luis ta Mondragon'dar Lucia'k alabatxu bat Maria Carmen izenagaz ugutzau dabe. Zorionak.

Mendiola.

¡Ai Ermenejildo, Ermenejildo! bizkor ezipagabiz gure belbileko ostera ospetsuari ezebeztute geldituko ete dan nago. Badaya'tar Simon'ek zalburdiagaz igon dabela, ta Olondo'n txapiloak bota be bai. Endorea, alkateta, egunokaz igoteko asmuetan dabilela...; osalarie belbilean Sañugon eldu dala. Zeitan gagoz Ermenejildo? EKIN'ean ainbeste zarata ta durundu atara-ta ez ete dogu ba ezer egingo? Aste onetan batu gara eta esango yatzue zer asmau dogun.

TRAÑA

Mañari.

Bederatziurena.

Goteunaren (Espiritu Santubaren) bederatzifuna, igaroriko barikuban asi zan. Iluntzietan egiten da.

Eskontza.

Laster ezkontzen dira Ortuoste'tar Margarite neskatila ta Arteaga'tar Lonarta mutil abertzalia. Zorionak.

Eguna igaroten.

Gernika'tik etofita, igandian egon zan emen, Ruiz Wamba'tar Pilomen bere sendijagaz.

Durango'ra.

Igandian, Durango'n Astarloa -Etxian ospatu zan euzkerazko Kistar-Ikasbide jaira, emetik be lagun mordotxu bat juan gintzazan. Eta

bertan, ainbeste ume, asterketak egiten ikusi gebazan. Umetxuak, euren irakaslia dan Belausfegi'tar Pantzeka jaupari biargiña'ren itaun sakoneri, egoki ta polito erantzuten eutsen. Aixebai zela pozgarizko unia benetan! Umetxuen abo efuge-go-zoak, Eleiz - Ama deunaren egijak ogaizitia, gauza andija da ixan be ta...

Bitartietan, Safionandia jaunak lorareskiña jota, uniak eta Galastegi ta Mendiguren jaunak, abesti entzugafijak, ederto baten abestu ebezan. Gero, Lafañaga'tar Eukeni jaupari gaztiak, Kistar-Ikasbidea irakastiaz, adibide egokijak ipinita, berbaldi eder-edefa egin euskun; eta azkenez, Enbela'tar Kepa gure olerkari andijak, bere bertzo txukun batzuk atsegindu ginduzan. Jai edefa ta polit-polita izan zan.

Zorionak, umieri ain gauza edefak irakasten arduratu diran gustijeri.

Jai begiko ofetara, albo-efijetatik be lagun askotxo erdu zan; eta Zornotza'tik eta Abadiano'tik etofita, antxe ikusi gebazan Arzubiaga'tar Kuiril jaun agurgafija, asteroko onen artezkarija, ta «Agarel» idazle azkafa.

MAÑARIKO

Bakio.

Gazteluatxeko Deun Jon.

Gazteluatxe'ko Domiñera, ikustal-ditxo bat egitera, igaro zan asteen juan gintzazan. Eleiz aretako zelaya ta eleizpea, kortea bai-litz loi, ardi-korotzak in zikinduta ikusita, ango arduradunai ifaun bat egitea bururatu jat. ¿Ara gora ardiak igon бага, lenago zan tokian ezin daiteke atetxu bat ipini? Lenago bazan bat maladi aufean.

Arentzak.

San Pelayo'tar talda bat, eleizgizona buru ebela, Jaunaren Zerura-igokunde -aufegunean, joan ziran Meñaka'ra. Oitura zar au zelan sortu ete zan agure bateri itandu dautsat. Gangefi edo kolera aldian asabak egindako ezkeintza zala erantzun daust.

Ilak.

Bakio'ko biztanlerik zarfena zan Uriarte'tar Txomin il da, il zanean 94 urte eukozan. ¡Afo geldituko zan besteren bat, zarfena tartean lelengo gelditu dala ta!

Ikastolan txikia nintzanean nire amez orok lelengo malea afapatea izan oi ziran. Andien tartean be bardin jasoko dala uste dot.

Baita Kuba-aldetik be izpar baltz bat eldu jaku; San Juan emeko semea, bere semetxoaren lelengo Jaun-arte-eguna ospatuten beragaz itxasora urten ebala ta, Jauna'k itxasotik zerura eroan ebazala, ifota. Euron senideai neure samin-egufa.

IBAI

Erigoiti.

1616.

1616'ko Utien zazpien etofi zan elezea ikusten Agustin del Kastilo jauna, eta liburu bafien ezeudela ipini zarfena zenbat diru geratu yakon elezeari, ta liburu ori Bilbon egon bear dabela esan deutziela ta, a topetako komisiño bat ipini eban Pedro de Landa abade jauna buru zala. Agindu eutzien efiko abadeai azaldu dagiela Kristiñau Ikasbidea (dotriña) domeka gustietako meza erdian eta izten daben bakotzeko lau efek multea ordaindu bearko dabela. Baita, abade, mayordomu ta elezako ardurea euken andreari agindu eutzien euki dayela lanparea ixitute gau ta egun, ostantxean exkomulgauk izango dirala. Galazo eutzi-

Bilbao'ko Aurrezki-Kutxa Udaldarra

ESTACION, 3

Gizarte-lagunagarritzat bazkun onarfua

Udalak erantzun eta bere urgazpian Lan eta Aurrezki - Altseintzak artua

Ikastola, Umeen Aufezki-kutxa, Onegintza, Jakintza, Aur-urgazpina, Amatasun-laguntza

1932'gko. Lotazila'ren 31'gnian ipiniitako dirutza: 182.741.638,37

Bere irabazi ta onura gustiak gerorako dirufzea geituteko eta Bizkaya'n iraso ta sortu dauzan ONAURKI EKINTZAI eusteko dira.

Bigarren Landola ta Baitura etxia;

Plazuela de los Santos Juanes, San Anton aurrin.

44 etitan daukoz ordaingoak. Barakaldo'n Baitura-etxia be bai.

Eleizetarako Altara, Pulpitu, Konfesonario,

baita edozetariko erti lanak arian eta zulean

Goikoetxea'tar Erroman'en lantegian

VITORIA (Gazteiz) Cancellor de Ayala kalean (Anglo-Vasco geldoki-aurtean)

Gazteizko Erakusketan (1916'an) lenengo saria ta ufezko domiña.